

ANDRA MARIAREN BIZITZAKO KURUTZBIDEA

Doinua: "Markesaren alaba"

1

Hemen gatortzuz, Ama,
guziok batera,
Kurutzbidean Zuri
lagun egitera.

Jesusegaz batera
Zeugaz ikastera,
izan nahi dogulako
Jesusen antzera.

2

Jesusen sorlekua
amaren sabela,
mundura jaio nahita
erantzun ustela.

baztar baten jaio da
ijito bezela,
Jainko Semearentzat
hori da hotela!

3

Jesus jaio orduko
Igesi kanpora,
Erodesek nahi leuke
bota lur-zulora.

Aita-Ama- Semeak
ospa Ejiptora,
zerurako bidea
beti aldazgora.

4

Lege Zaharra beteaz
Jerusalenera,
Simeonek ezpata
dakartso aurrera.

Hak sastaka bihotza
batetik bestera,
poza ta nahigabea
ohi datoz batera.

5

Hamabi urte eta
hau da erantzuna!
Amak ezin ulertu
belarriz entzuna.
"Aitak emonda daukat
Nik eginkizuna";
Garratza izan ohi da
sarri maitasuna.

6

Urteak joan-etorri
bizitza aurrera,
dana doa bardintsu
gitxi gorabehera.
Jose hil jakon eta
alargundu bera
aingerurik ez dator
gaur Nazaretera.

7

Hogeita hamar urtera
Jesusen amari:
"Erantzun behar deusat
Aitaren deiar!".
- Zoaz ta izan, Seme,
Haren mezulari",
baietzak sarri dakarz
malkoak ugari.

8

Hasi da herriz-herri
ordua da-eta,
Aitak bialdutako
maisu ta profeta.
Batzuk pozik, besteak
amorruez erreta,
hau ikusita, Ama
nahigabez beteta.

8

Senideakaz ama
Semearen bila,
askoren ustez ago
burutik kaskila.
'Nire ama, senide
dira hamar mila,
Aitari entzun eta
jarraitzaile pila'.

9

Profeta bere herrian
bakarrik gorrota,
Jesusen Nazareten
zelango porrota!
Amildegitik behera
gura dabe bota;
Ai amaren samina
penaz zehatz jota.

10

Kurutza lepoan ta
jenteak harrika,
Kalbarioan gora
jausi ta jagika.
Baditu lagun onak
Simon, Beronika.
geu be hemen gaukazuz
Zeuk, Ama, bedeinka.

11

Semea kurutzean
Ama, zu aurrean,
Zuk Haren azken nahia
jaso beharrean.
'Neu lez zaindu egizuz
Eleiz batzarrean,
uste osoa jarriz
goiko indarrean'

12

Egoera tristean
laster da azkena,
hau da ikuskizuna
hau Amaren pena!
Orain zelan ordaindu
holango krimena?
Zeuk bakarrik ahal dozu
egin amarena.

13

Aitaren eskuetan
emon dau arnasa,
eta dana gugaitik
hori da demasa.
Hau bai Mariarentzat
momentu eskasa,
guk hau jakinda, zelan
egin jota pasa?

14

Lurpean sartzeraino
maite gaituala,
Jesus, Zu izan zara
lagun mundiala.
Eta gu holan bizi?
Hau bai da mortala!
Espirituak behingoz
itzartu gaizala.

A. Martzel